# Rencontres sur les docks

#17

Docketan topa

EKAiNAREN 23→26 JUiN.2021

BAYONNE BAiONA

AVANT-PREMIÈRES · DÉBATS · CONCERTS · EUSKAL ZiNEMA ·



L'ATALANTE

CiNÉMA VO · BiSTRO · EXPO

atalante-cinema.org



# EDiTO

Le cinéma regorge de femmes puissantes, engagées, créatrices, aventureuses : qu'elles soient réalisatrices, actrices, productrices, les femmes (et elles sont évidemment nombreuses, depuis la pionnière Alice Guy qui vécut dans l'ombre de Méliès et des frères Lumière) ont toujours eu une place à part entière dans l'industrie cinématographique, tout en contribuant à façonner nos imaginaires. Ces dernières années, dans le sillage des acquis du féminisme, cette place a évolué, en même temps que les représentations et les récits. Les réalisatrices s'emparent de tous les sujets, façonnent des personnages émancipés à l'aune d'une époque traversée par de multiples questionnements et par les revendications du mouvement MeToo ou du collectif 50/50, qui milite pour l'égalité dans tous les domaines. La sélection de cette 17ème édition des Rencontres sur les Docks reflète en partie ces préoccupations, mais elle est surtout l'occasion de mettre un cinéma de création qui travaille cette question de l'émancipation.
La création est aussi au centre du focus consacré au cinéma basque avec pour la première fois des journées pro et une résidence d'accompagnement de jeunes auteurs, Hemendik, initiée avec l'association Zukugailua (la Centrifugeuse) et le Gaztefilm fest de Vitoria ; mais aussi une table ronde sur le thème de la place des femmes dans le cinéma basque et deux belles avant-premières, avec NORA de Lara Izaguirre et LES SORCIÈRES D'AKELARRE de Pablo Agüero, tous deux tournés en langue basque.
Lieu privilégié de brassage et de rencontres, le festival accueillera également, avec la complicité de l'Atabal, la venue du grand écrivain Alain Damasio, formidable activateur de luttes et de pensée.
Et plus que jamais, les Rencontres seront le symbole d'un retour à la vie autour de moments d'échanges, de radio et de musique avec notamment un show-case de la chanteuse Izaro, et le concert du duo Lumi en collaboration avec le collectif Moï Moï, qui viendra clôturer la journée du samedi. On mise sur votre enthousiasme et sur votre curiosité !

Sylvie Larroque
et toute l'équipe de l'Atalante

Emazte indartsu, engaiatu, sortzaile, abentura zaleez gainezka dago zinema: izan film egile, aktore, ekoizle, emazteek (eta ugari daude argi denez, Méliès-en eta Lumière anaien itzalean egon den Alice Guy aitzindariatik hasirik) haien leku osoa betidanik ukan dute zinemagintzaren industrian, gure irudimenak moldatzen lagunduz aldi berean. Azken urte hauetan, feminismoak irabaziarazitakoen ildotik, leku hori aldatu da, irudikapen eta kontakizunekin batera. Emazte film egileak gai guziez jabetzen dira, pertsonai emantzipatuak moldatzen dituzte, galdekatze ugarik eta parekotasunaren arlo guzietan lortzeko borrokatzen duten MeToo mugimendua edo 50/50 kolektiboaren aldarrikapenek zeharkatzen duten garai honetan.
Docketan Toparen 17. ale honen selekzioak zati batez islatzen ditu arrangura horiek, baina emantzipazioaren gaia lantzen duen sorkuntza zinema bat argira ekartzeko parada da gehien bat. Euskal zinegintzari eskaini begirada bereziaren erdian dago ere sorkuntza, lehen aldiko burutuko baitira pro egunak eta Zukugailua elkartearekin eta Gasteizko Gaztefilm festekin plantan ezarri sortzaile gazteei sostengu egonaldiak egiteko aukera; baina baita emazteek euskal zinegintza duten lekua gaitzat hartuko duen mahai inguru bat eta bi aitzin agerraldi ere, euskaraz eginak izan diren Lara Izaguirreren NORA eta Pablo Agüeroren AKELARREKO SORGINAK filmekin. Nahaste eta elkartze leku ezin hobea izanik, Alain Damasio idazle handia izateaz gain, borroka eta pentsamen aktibatzaile paregabeari harrera eskainiko dio ere, Atabalen laguntzarekin. Eta sekula baino gehiago, elkarren artean berriz solastatzeko aukera emanen digute Topaketa hauek, irratiaz eta musikaz gozatuz ere Izaro kantariaren show-case bat, eta larunbateko egunari bukaera emanen dion Lumi bikotearen kontzertuarekin, Moï Moï kolektiboarekin lankidetzan, besteak beste, berriz bizira itzultzeko. Zuen suhartasuna eta zuen jakinminari esker!

Sylvie Larroque
eta Atalanteko talde guzia

# AVANT-PREMIÈRES
# AiTZiN AGERRALDiAK

## DEBOUT LES FEMMES !

FRANCE | 2020 | 1H25 | RÉALISÉ PAR FRANÇOIS RUFFIN ET GILLES PERRET



« Mais qui m'a mis cette tête de con ? « Ce n'est pas le grand amour entre le député En Marche ! Bruno Bonnell et l'insoumis François Ruffin. Et pourtant… C'est parti pour un «road-movie parlementaire» à la rencontre des femmes qui s'occupent de nos enfants, nos malades, nos personnes âgées. Ensemble, avec ces invisibles du soin et du lien, ils vont traverser confinement et couvre-feu, partager rires et larmes, colère et espoir. Ensemble, ils vont se bagarrer, des plateaux télés à la tribune de l'Hémicycle, pour que ces travailleuses soient enfin reconnues, dans leur statut, dans leurs revenus. Et s'il le faut, ils réinventeront l'Assemblée…

Après MERCI PATRON et J'VEUX DU SOLEIL, le député reporter revient avec un documentaire décapant et émouvant, co-signé avec son compère Gilles Perret.

→ **Mercredi 23 juin à 20h30. En présence de Giles Perret** (sous réserve) et de la chorale féministe.

→ **Ekainaren 23an, asteazkenarekin 20:30etan, Gilles Perret hor izanik** (baieztatzekoa) **eta emazteen abesbatzaren emanaldiarekin.**

## ZUTiK EMAZTEAK!

Frantzia | 2020 | 1:25 | François Ruffin eta Gilles Perret-ek zuzendurik

« Baina nondik ekarri didazue asto pito hau? « Ez dute elkar biziki maite Bruno Bonnell En Marche !-ko diputatuak eta François Ruffin insumituak. Eta alta… Horrela abiatzen da « legebiltzarreko road-movie » hau, gure haurrez, gure eriez, gure adinekoez arduratzen diren emazteengana joanez. Elkarrekin, arta eta loturaren ikusezinezkoekin, konfinamendua eta etxeratze agindua zeharkatuko dituzte, irriak eta malkoak, sumindura eta itxaropena partekatuz. Elkarrekin, borrokatuko dira, telebistako platoetatik Hemizikloko mintzalekura, langile hauek azkenean ezagutuak izan daitezen, haien estatutuan, haien diru sarreren mailan. Eta behar baldin bada ere, Legebiltzarra berriz asmatuko dute… MERCI PATRON eta J'VEUX DU SOLEIL filmen ondotik, diputatu kazetaria itzultzen zaigu Gilles Perret haren adiskidearekin batera zuzendu dokumental garratza eta hunkiga aurkezteko.

## LA VOiX D'AiDA



BOSNIE-HERZÉGOVINE | 2020 | 1H44 | EN VO | RÉALISÉ PAR JASMILA ŽBANIĐ AVEC JASNA DJURICIC, IZUDIN BAJROVIC, BORIS LER, DINO BAJROVIC.

◗ Grand Prix du jury au Festival du Film de Femmes de Créteil.

Srebrenica, juillet 1995. Modeste professeure d'anglais, Aida vient d'être réquisitionnée comme interprète auprès des Casques Bleus, stationnés aux abords de la ville. Leur camp est débordé : les habitants viennent y chercher refuge par milliers, terrorisés par l'arrivée imminente de l'armée serbe. Chargée de traduire les consignes et de rassurer la foule, Aida est bientôt gagnée par la certitude que le pire est inévitable. Elle décide alors de tout tenter pour sauver son mari et ses deux fils, coincés derrière les grilles du camp…

La réalisatrice de SARAJEVO MON AMOUR, Ours d'Or à Berlin en 2006, revient sur la tragédie du massacre de Srebrenica dans une fiction réaliste captivante, qui choisit l'angle du dilemme moral plutôt que celui de la reconstitution historique. → **Mercredi 23 juin à 20h45**

## AiDAREN BOZA

BOSNIA-HERZEGOVINA | 2020 | 1:44 JB-AN | JASMILA JASMILA ŽBANIĐ-EK ZUZENDURIK, JASNA DJURICIC, IZUDIN BAJROVIC, BORIS LER, DINO BAJROVIC-EKIN

◗ Créteil-eko Nazioarteko Emazteen Filmaren Festibaleko Epaimahaiaren Sari Nagusia

Srebrenica, 1995eko uztaila. Aida, ingeleseko irakasle xumea, Hiriaren inguruetan plantatu Kasko Urdinekin itzultzaile gisa aritzeko errekisizionatu berria da. Haien kanpamentua gainezka da: agertzekotan den serbiar armadak ikaratu milaka biztanle geriza bila datoz bertara. Manuak itzultzeaz eta jendea jabaltzeaz enkargaturik, Aida laster arrunt jabetzen da ezingo dela hondamendia saihestu. Erabakitzen du orduan dena egitea kanpamenduko burdin hesien gibelean hertsaturik dituen senarra eta bi semeak salbatzeko… Srebrenica-ko sarraskia gaitzat hartzen du 2006ko Urrezko Hartza irabazi duen SARAJEVO MON AMOUR filmaren egileak , fikzio errealista liluragarri bat burutzeko, ataka moralaren ikuspegia lehenetsiz berrosatze historikoari.

→ **Ekainaren 23an, asteazkenarekin 20:45etan.**

## LE KiOSQUE

FRANCE | 2020 | 1H18 | RÉALISÉ PAR ALEXANDRA PIANELLI

Paris, un kiosque à journaux. Alexandra est réalisatrice, fille, petite- fille et arrière-petite-fille de kiosquiers. Elle est venue prêter main- forte à sa mère et, comme dans un vieux rêve d'enfant, joue à la marchande. Depuis cette fenêtre sur la rue, elle filme avec humour et tendresse les coulisses du métier et le défilé quotidien de clients détonants. Mais la presse papier et les commerces de proximité sont en crise, et ce petit jeu s'avère finalement plus compliqué que prévu…→ **Jeudi 24 juin à 18h15, séance en présence de Alexandra Pianelli.**



## KiOSKOA

FRANTZIA | 2020 | 1:18 | ALEXANDRA PIANELLI-K ZUZENDURIK

Paris, kazeta kiosko bat. Film egilea da Alexandra, bai eta kioskolari alaba, biloba eta birbiloba ere. Haren amari esku ematera etorri eta, haur amets zahar batean bezala, merkatari izaten jostatzen da. Karrikara ematen duen leiho horretatik, umorea eta amultsuenez filmatzen ditu lanbidearen gibeleko aldea eta bezero berezien eguneroko joan-jinak. Baina paperezko prentsa eta hurbileko merkataritza krisian dira, eta joko hau azkenean pentsatu baino konplikatua gertatzen da…

→ **Ekainaren 24an, ostegunarekin 18:15etan, Alexandra Pianelli-rekin solasaldia emanaldiaren ondotik.**



Bio : Alexandra Pianelli est diplômée des Arts Décoratifs de Strasbourg. Elle axe sa pratique autour des notions de travail et de jeu, aime le bricolage et se définit volontiers comme un couteau suisse. Son travail s'articule à partir d'une quête de l'autre. Celui qu'on n'a pas vu même si on était à côté.

Bioa : Strasbourgeko Arte Apaingarrien diploma lortu du Alexandra Pianelli-k. Lan eta joko nozioen inguruan zuzentzen du haren jarduera, xitxuketa gustukoa du eta suizar ganibetatzat dauka gogo onez haren burua. Haren lana bestearen eske batetik abiatuz egituratzen da. Haren ondoan bagina ere ikusi ez dugun hura.

## KUESSiPAN



CANADA | 2020 | 1H57 | EN VO | RÉALISÉ PAR MYRIAM VERREAULT AVEC YAMIE GRÉGOIRE, SHARON FONTAINE-ISHPATAO

Nord du Québec. Mikuan et Shaniss, deux amies inséparables, grandissent dans une réserve de la communauté innue. Petites, elles se promettent de toujours rester ensemble. Mais à l'aube de leurs 17 ans, leurs aspirations semblent les éloigner : Shaniss fonde une famille, tandis que Mikuan tombe amoureuse d'un blanc et rêve de quitter cette réserve devenue trop petite pour elle… Adapté du lumineux roman autobiographique de Naomi Fontaine, KUESSIPAN dépeint la trajectoire initiatique et l'histoire d'amitié de deux jeunes femmes vivant au sein de la communauté Innue (à ne pas confondre avec Inuits !). Une belle découverte.

→ **Jeudi 24 juin à 20h30, précédé du court métrage CHANT DE GORGE A KANGIRSUK** de Eva Kaukai et Manon Chamberland.

## KUESSiPAN

CANADA | 2020 | 1:57 | JB-AN | MYRIAM VERREAULT-EK ZUZENDURIK YAMIE GRÉGOIRE, SHARON FONTAINE-ISHPATAO-REKIN

Quebec-eko iparraldean. Mikuan eta Shaniss, adiskide bereiziezinak, innue komunitateko erreserba batean handitzen dira. Ttipiak direlarik elkarri hitzematen diote beti elkarrekin egotea. Baina 17 urte betetzekotan daudelarik, haien asmoek elkarrengandik urrunduko dituzketela dirudi: Shaniss-ek familia bat sortzen du, Mikuan bere aldetik xuri batez maitemintzen delarik eta harentzat ttipiegia bilakatu den erreserba horretatik joateko gogoa duelarik… Naomi Fontaine-ren eleberri autobiografiko argitsutik egokiturik, Innue (Inuitekin nahasi behar ez direnak!) komunitatearen baitan bizi diren bi emazte gazteren ibilbide iniziatikoa eta adiskidetasun historia itxuratzen du KUESSIPAN-ek. Aurkikuntza ederra.

→ **Ekainaren 24an, ostegunarekin 20:30etan, CHANT DE GORGE A KANGIRSUK** Eva Kaukai eta Manon Chamberland-en laburmetraiaren emanaldiarekin aitzinetik.

## FiRST COW



ÉTATS-UNIS | 2020 | 2H02 | EN VO | RÉALISÉ PAR KELLY REICHARDT AVEC JOHN MAGARO, ORION LEE

◗ Prix du jury – Festival de Deauville 2020

Autour de 1820, Cookie Figowitz, un cuisinier expérimenté solitaire et taciturne, voyage vers l'Ouest et finit par rejoindre un groupe de trappeurs au fin fond de l'Oregon. Là, il se lie d'amitié avec King-Lu, un immigrant d'origine chinoise qui cherche aussi à faire fortune. Ils vont rapidement s'associer pour créer une petite entreprise prospère, utilisant une vache laitière très prisée par un riche propriétaire des environs pour fabriquer des gâteaux… On a bien failli ne pas voir sur grand écran le dernier opus de Kelly Reichardt, cinéaste discrète considérée comme l'une des plus importantes de sa génération. La réalisatrice de OLD JOY et de LA DERNIERE PISTE propose ici une histoire simple et bouleversante dont elle a le secret, la sortie du film étant prévue à la rentrée… → **Samedi 26 juin à 20h30**

## LEHEN BEHiA

ESTATU BATUAK | 2020 | 2:02 JB-AN |KELLY REICHARDT-EK ZUZENDURIK JOHN MAGARO, ORION LEE-REKIN

◗ Epaimahaiaren Saria – 2020ko Deauvilleko Festibala

1820 inguruan, Cookie Figowitz, eskarmentu handiko sukaldari bakarti eta murritzak bidaia abiatzen du mendebaldera buruz eta tranpa-jartzaile talde batekin elkartzen da Oregon-eko zola batean. Hor, King-Lu, berak ere aberasteko asmoa duen txinatar jatorriko etorkin batekin adiskidetzen da. Laster asoziatuko dira enpresa jori ttipi bat sortzeko, bixkotxak egiteko inguruetako jabe aberats batek begi pean duen behi esnedun bat erabiliz…

Kasik ez dugu ikusi ahal izan zinegeletan haren belaunaldiko film egile garrantzitsuenetakotzat hartua den Kelly Reichardt diskretuaren azken lana. OLD JOY eta LA DERNIERE PISTE-ko egileak historio soil eta hunkigarria eskaintzen du hemen, filmak sartzean atera beharko lukeelarik…

→ **Ekainaren 26an, larunbatarekin 20:30etan**

## CONCERT DE
# LUMi
→ **Samedi 26 juin à 19h**


© Laurence Revol

LUMI est un duo basque d'électro indé né en 2014.
À la voix, Nahia Zubeldia (Unamo), et aux machines, Manu Matthys (Matthys, Odei).
LUMI est le fruit de la rencontre de deux chemins a priori plutôt éloignés : celui de Nahia, fondé sur le chant basque et les mélodies plutôt folk, et celui de Matthys, résolument tourné vers l'electro. Leur son est à la fois très produit et profondément organique. Le duo a eu l'occasion de jouer en première partie de Dominique A et de Sébastien Tellier, ou au festival Baleapop à Saint-Jean de Luz, entre autres.
Lumi a publié chez Moï Moï records son premier EP en 2014, puis l'album Itzal zikinak (les ombres sales) en 2019. Le duo tourne actuellement avec un nouveau set, qui constituera son nouvel album. Les paroles, toujours en euskara, ont été écrites fin 2020 lors d'une résidence à Nekatoenea.
*En partenariat avec le collectif Moï Moï.*
Et dès le jeudi à partir de 18h, plateau radio Dia + Dj set proposé par Moï Moï.

## LUMi-ren KONTZERTUA
→ **Ekainaren 26an, larunbatarekin, 19:00etan**
2014an sortu euskal duo elektro indea da LUMI. Nahia Zubeldia (Unama) kantaria, eta makinetan, Manu Matthys (Matthys, Odei). Hastapen batean bateratzeko aukera guti zuten bi bideren elkartzearen ondorioa da LUMI: euskal kantuan eta folk motako melodietan oinarritu Nahiarena, eta elektrora arrunt bihurtua zen Matthysena. Haien soinua aldi berean biziki ekoiztua da eta sakonki organikoa. Dominique A eta Sébastien Tellier-en lehen partea egiteko parada ukan du bikoteak, bai eta Donibane Lohizuneko Baleapop festibalean ere, besteak beste. Bere lehen EP-a Moï Moï records-en argitaratu du Lumik 2014an, eta ondotik Itzal zikinak albuma 2019an. Haren album berria osatuko duen set berri batekin dabil oraingoan bikotea. Hitzak, beti ere euskaraz, Nekattoenean 2020 bukaeran burutu egonaldi baten karietara idatziak izan dira. Moï Moï kolektiboarekin partaidetzan. Eta ostegunetik beretik 18:00etatik aitzina, Moi Moi-ek proposatu radio Dia + Dj set platoa

DIA! Moï Moï

## CONCERT SOLO
# D'iZARO

→ **Vendredi 25/06 à 19h00**
Izaro Andres Zelaieta est une compositrice romantique et rêveuse. Son dernier album Limones en Invierno, sorti en janvier 2020 fut numéro un des ventes de disques en Espagne. À 26 ans, cette artiste basque, engagée aussi pour les droits des femmes, joue déjà à guichets fermés et multiplie les collaborations. Elle a prêté notamment sa musique au film NORA de Lara Izaguirre. C'est à ce titre qu'elle viendra présenter en exclusivité une version intime de son répertoire, dans un court concert solo avant la projection du film.


©Jon Etxezarraga

→ **06/25ean, ostiralarekin 19:00etan**
**IZAROren bakarkako kontzertua**
Musikagile erromantiko eta ameslaria da Izaro Andres Zelaieta. Limones en Invierno, 2020ko urtarrilean atera haren bigarren albuma bigarren sailkatu zen Espainiako disko salmentetan. 26 urtetan, emazteen eskubideen alde ere borrokatzen duen euskal artista honek gelak betetzen ditu jadanik haren emanaldietan aldi berean lankidetzak biderkatuz. Haren musika Lara Izagirreren NORA filmari prestatu dio besteak beste. Horren ondorioz du gure festibalean bakarrik haren errepertorioko bertsio intimo bat aurkeztuko, bakarkako kontzertu labur baten karietara, filma emana izan aitzin.

EURORÉGION EUROESKUALDEA EURORREGIÓN

## EXPOSiTiON
# FEMiNiSTE, FEMiNiSTA !

Portrait de féministes du Pays basque par Gabrielle Duplantier.



Une exposition photographique et sonore sur le féminisme en soi, à travers des récits de parcours individuels.
Les portraits de cette exposition ont été réalisés par Gabrielle Duplantier entre septembre et octobre 2019. L'exposition a été conçue par Francisco Dussourd en novembre 2019. Les témoignages ont été réunis et montés par le PAF ! avec l'oreille extérieure et le mixage de Johannes Buff.

→ **Vernissage mercredi 23 juin à partir de 18h30.**
Stand de littérature féministe avec la librairie Elkar.
Dj set de ClaM y Dia à 19h.
Chorale féministe aux alentours de 20h,
avant DEBOUT LES FEMMES !

## ERAKUSKETA FEMiNiSTE, FEMiNiSTA !
Euskal Herriko feminista batzuen potreta Gabrielle Duplantier -en eskutik
Argazki eta entunezko erakusketa feminismoaz, ibilbide indibidual batzuen kontakizunen bitartez.
Erakusketaren potretak Gabrielle Duplantier-ek egin ditu, 2019ko irailean eta urrian.
Francisco Dussourd-ek erakusketa muntatu du 2019ko azaroan. Lekukotasunak PAF!-ek bildu eta muntatu ditu Johannes Buffen laguntza eta ekarpenarekin
→ **Estreinaldia, ekainaren 23an, asteazkenarekin, 18:30etatik aitzina.**
Literatura feminista erakusmahaia Elkar liburutegiarekin.
Dj set de ClaM y Dia 19:00etan.
Emazte abesbatza, 20:00ak inguru, DEBOUT LES FEMMES ! (ZUTIK EMAZTEAK!) aitzin

elkar



## RENCONTRE AVEC
# ALAiN DAMASiO

→ **Vendredi 25 juin**
**à 18h à l'Atalante.**

Cette rencontre inaugurera une série de rendez-vous avec des personnalités venues d'horizons différents (écrivains, philosophes, sociologues, cinéastes) : la salle de cinéma, vue comme une agora pour penser notre monde en mutation et ouvrir d'autres horizons, pour mieux résister à l'effondrement.
Alain Damasio - lanceur de pistes et écrivain visionnaire auteur du très acclamé Les Furtifs-, aura carte blanche pour interroger notre lien au vivant et la place des lieux de culture, lieux de brassage et d'échanges dont nous avons été privés ces derniers mois.
En partenariat avec la scène de musiques actuelles l'Atabal, qui présentera à Biarritz à 20h30 le concert Entrer dans la couleur d'Alain Damasio & Yan Pechin.

## ALAiN DAMASiOREKIN TOPAKETA
→ **Ekainaren 25ean, larunbatarekin, 18:00etan Atalanten**
Toki desberdinetatik etorri pertsona ospetsu batzuekin (idazleak, filosofoak, soziologoak, zinegileak) finkatu hitzordu andana baten abiapuntua izanen da topaketa hau: zinegela agora baten gisara ikusita, mugitzen den gure mundua pentsatzeko eta beste zerumuga batzuk irekitzeko, erortzeari hobeki ihardokitzeko. Alain Damasio – pista igorlea eta Les Furtifs liburu oso arrakastatsuaren ikusmen handiko idazleak -, eskuak libro izanen ditu bizirik denari diogun harremana eta, azken hilabete hauetan hetsiak izan zaizkigun nahasketa eta trukatze lekuak ditugun kultura guneen lekua galdekatzeko. Alain Damasio & Yan Pechin-en Entrer dans la couleur aurkeztuko duen Atabal gaur egungo musiken eszenatokiarekin partaidetzan.

· Tarif sur place pour la conférence :
5 eur. (3eur. pour les adhérents).
Places concert en vente sur le site de l'Atabal : 12eur. concert seul / 15eur. conférence + concert
· Prezioa tokian berean hitzaldirako: 5 eur. (3 eur. kideentzat).
Kontzerturako lekuak Atabalaren gunean salgai: 12eur. kontzertua bakarrik / 15eur. hitzaldia + kontzertua

Atabal
Scène de Musiques Actuelles de Biarritz
Biarritzeko Gaurko Musiken Eszena

# FEMMES À LA CAMÉRA

# EMAZTEAK KAMERAREN GIBELEAN



## OUVRIR LA VOIX

FRANCE | 2017 | 2H09 | RÉALISÉ PAR AMANDINE GAY

«Ouvrir La Voix est un portrait politique de femmes noires d'Europe francophone, qui révèle la complexité et la multiplicité de nos vies et de nos identités. C'est ma façon de célébrer l'histoire de la résistance des femmes noires qui depuis le marronnage, en passant par la créolité, le panafricanisme, la négritude et l'afro féminisme ont toujours inventés des outils leur permettant de ne pas être réduites au silence.
Ce film est pour celles qui se sont battues avant nous et un témoignage pour celles qui viendront après nous.» Amandine Gay

**→ Jeudi 24 juin à 18h00, séance en présence de la réalisatrice.**

## BOZA IREKI

FRANTZIA | 2017 | 2:09 |
Amandine Gay-k zuzendurik

«Gure bizien eta gure nortasunen konplexutasuna eta aniztasuna erakusten duen Europa frantsesduneko emazte beltz batzuen potreta politikoa da Ouvrir La Voix. Isiltasun egoera batean egoteko behartuak ez izateko ahala eman dieten tresnak sortu dituzte beti, esklabotasunetik ihes egin duten haietatik, kreoletasunetik, panafrikanismotik, negritudetik eta afro feminismotik iraganez, emazte beltzen erresistentziaren historia ospatzeko hautatu dudan moldea da. Gu baino lehen borrokatu direnentzat eta gure ondotik etorriko direnentzat da film hau.» Amandine Gay

**→ Ekainaren 24an, ostegunarekin 18:00etan, egilearekin solasaldia emanaldiaren ondotik**



## UNE HISTOIRE À SOI

FRANCE | 2020 | 1H40 | RÉALISÉ PAR AMANDINE GAY

Iels s'appellent, Anne-Charlotte, Joohee, Céline, Niyongira, Mathieu. Iels ont entre 25 et 52 ans, sont originaires du Brésil, du Sri Lanka, du Rwanda, de Corée du Sud ou d'Australie. Ces cinq personnes partagent une identité : celle de personnes adoptées. Séparé.e.s dès l'enfance de leurs familles et pays d'origine, ils ont grandi dans des familles françaises. Leurs récits de vie et leurs images d'archives nous entraînent dans une histoire intime et politique de l'adoption internationale.
Amandine Gay pose un regard inédit sur l'adoption, qui bouscule avec intelligence les idées reçues et livre un témoignage fort sur l'expérience intime du déracinement...

## NORBERAREN HISTORIA

FRANTZIA | 2020 | 1:40 | AMANDINE GAY-K ZUZENDURIK

Anne-Charlotte, Joohee, Céline, Niyongira, Mathieu deitzen dira. 25 eta 52 urte artekoak dira, Brasil, Sri Lanka, Rwanda, Hego Korea edo Australiatik datoz. Nortasun berdina partekatzen dute bost pertsona hauek: adoptatuak dira guziak. Jatorriko familiatik eta herritik haurtzaro garaitik bereizirik izanik, frantses familia batzuetan handituak dira. Haien bizitzen kontakizunak eta haien artxibo irudiek, nazioarteko adopzioaren historia intimo eta politikoan murgiltzen gaituzte. Adopzioaren begirada berri bat eskaintzen digu Amandine Gay-k, asmo komunak adimentsuki inarrosiz eta deserrotzearen bizipen intimoari buruz lekukotasun azkarra ekarriz...

**→ Ekainaren 24an, ostegunarekin 20h15etan, egilearekin solasaldia emanaldiaren ondotik**



Bio: Réalisatrice, universitaire, activiste, Amandine Gay partage son temps entre recherche et création. Après OUVRIR LA VOIX sorti en 2017, son deuxième opus Une Histoire à Soi vient de sortir env salles. Elle intervient régulièrement comme conférencière à propos de l'afro féminisme, de l'intersectionnalité ou de l'adoption.

Bioa: Ikerketa eta sorkuntzari eskaintzen die bere denbora Amandine Gay film egile, unibertsitario aktibistak. BOZA IREKI, 2017an ateratu haren lehen filmaren ondotik, Une Histoire à Soi bere bigarren sorkuntza atera berria da. Usu hitzaldiak eskaintzen ditu afro feminismoa, intersekzionalitatea edo adopzioa aipatzeko.



## PLAYLiST

FRANCE | 2020 | 1H25 | RÉALISÉ PAR NINE ANTICO AVEC SARA FORESTIER, LAETITIA DOSCH, PIERRE LOTTIN

Sophie a 28 ans. Elle aimerait être dessinatrice, mais ce serait tellement plus facile si elle avait fait une école d'art. Elle aimerait aussi trouver l'amour, mais ce serait tellement plus facile s'il vous sautait aux yeux. Elle multiplie les expériences amoureuses et professionnelles. Prendre des coups, beaucoup, en donner, un peu : c'est ça, l'apprentissage. Dans sa tête tourne en boucle Daniel Johnston, qui chante que « l'amour véritable finit bien par vous tomber dessus » ; mais Sophie se demande s'il dit vrai. Un film pop et euphorisant sur deux filles d'aujourd'hui, premier passage à la réalisation de l'autrice de BD Nine Antico.

**→ Samedi 26 juin à 17h, séance en présence de la réalisatrice.**

**→ → Ekainaren 26an, larunbatarekin 17:00etan, filmaren egilearekin solasaldia emanaldiaren ondotik.**

## PLAYLiST

FRANTZIA | 2020 | 1:25 | NINE ANTICO-K ZUZENDURIK SARA FORESTIER, LAETITIA DOSCH, PIERRE LOTTIN AKTOREEKIN

28 urte ditu Sophie-k. Marrazkilaria izan nahi luke baina anitzez errazagoa litzateke arte eskola batean ibilia izan balitz. Amodioa ere atzeman nahi luke baina anitzez errazagoa litzateke begi bistakoa balitz. Amodio eta lanbide esperientziak biderkatzen ditu. Kolpeak hartu, ugari, eman, piskat: hortan datza ikastea. Bere buruan etengabe itzulika dauka « zinezko amodioa gainera eroriko zaizu nahitaez egun batez » dion Daniel Johnston-en kantua; baina Sophie-k bere buruari galdegiten dio egia ote den. Gaur egungo bi neska gaitzat hartu dituen pop film alaigarria, Nine Antico komiki sortzailearen lehen aldia film egintzan.



## PARQUE LENiN

MEXIQUE | 2015 | 1H15 | EN VO |
RÉALISÉ PAR ITZIAR LEEMANS & CARLOS MIGNON

Leur dernier souvenir est celui d'un après-midi passé au Parque Lenin de la Havane. Parti le lendemain pour aller étudier l'opéra en France, Antoin laisse derrière lui Yesuan et Karla, encore adolescente ; la fratrie est dispersée. Dans un balancement embrassant les quotidiens – en France et à Cuba – de façon parallèle, se dessinent les ajustements, imprégnés de sensualité et de souffle romanesque.

**→ Samedi 26 juin à 15h, séance en présence de la réalisatrice Itziar Leemans.**

## PARQUE LENiN

(LENIN PARKEA) MEXIKO | 2015 | 1:15 JB-AN | ITZIAR LEEMANS & CARLOS MIGNON-EK ZUZENDURIK

Habanako Lenin Parkean iragan arratsalde bat da haien azken oroitzapena. Biharamunean Frantziara opera ikasteko abiaturik, Yesuan eta oraindik nerabea den Karla uzten ditu Antoin-ek; anaiartea barreiatua da. Paraleloki egunerokoak hunkitzen dituen kulunka batean -Frantzian eta Kuban -, sentsualitatez eta eleberri hatsez blaitu doitzeak marrazten dituzte.

**→ Ekainaren 26an, larunbatarekin 15:00etan, Itziar Leemans filmaren egilearekin solasaldia emanaldiaren ondotik.**



## BOCA CiEGA

FRANCE | 2020 | 1H25 | EN VO | RÉALISÉ PAR ITZIAR LEEMANS

BOCA CIEGA dresse le portrait de Thomas Henriot, un peintre atypique et radical qui travaille, depuis plus de 10 ans, dans les rues de la Havane. À mesure que ses œuvres prennent forme, les histoires qui les peuplent se révèlent. Nous plongeons dans l'intimité d'une famille cubaine, matière première qui nourrit son œuvre. Peindre est pour lui la seule façon possible d'être au monde…

## BOCA CiEGA (AHO iTSUA)

FRANTZIA | 2020 | 1:25 JB-AN | ITZIAR LEEMANS-EK ZUZENDURIK

Thomas Henriot, azken 10 urteetan Habanako karriketan lan egiten duen margolari atipiko eta erradikalaren potreta eskaintzen digu BOCA CIEGA-k. Haren obrek itxura hartzen duten arau, hauen osagai diren historiak agertzen dira. Kubatar familia baten intimitatean murgiltzen gara, hau baita haren obra elikatzen duen lehengaia. Munduan izateko molde bakarra da margolaritza harentzat…



Bio : Diplômée de L'Ecole internationale de cinéma de Cuba en 2021, Itziar Leemans signe deux ans plus tard son premier long-métrage :
PARQUE LENIN, un documentaire intimiste qui trace le portrait d'une fratrie cubaine – Grand prix du meilleur documentaire au Festival de Moscou. BOCA CIEGA, également tourné à Cuba, est le deuxième volet d'une trilogie consacré à cette fratrie et son entourage (le film faisait partie de la compétition du Festival International du Film de Femmes de Créteil).

Bioa
2018an, Kubako Nazioarteko zinemako eskolan diploma eskuratu eta bi urte berantago PARQUE LENIN haren lehen luze metraia zuzentzen du Itziar Leemansek, Kubako anaiarte baten potreta marrazten duen dokumental intimistaren moduan. Moskuko Festibalean dokumental onenaren Sari nagusia lortu du film honek. Kuban ere egina izan den BOCA CIEGA, anaiarte hau eta bere ingurumenari eskaini trilogiaren bigarren alea da (Créteil-eko Nazioarteko Emazteen Filmaren Festibalean lehian zen film hau).

# PORTRAiT DE FEMMES PUiSSANTES :

# EMAZTE BOTERETSUEN POTRETA



## AUDACiEUSES

Stella, Anaïs, Élodie et Romane : quatre héroïnes bien déterminées à vivre leurs vies comme elle l'entendent ! À travers différents âges de la vie et les épreuves qui vont jalonner leurs existences, un seul mot d'ordre : faire face. Ces quatre personnalités vont être amenées à s'affirmer avec courage, humour et inventivité pour se libérer de la condition qui leur a été assignée. Interrogeant la représentation des personnages féminins au cinéma, les courts-métrages de ce programme se proposent d'explorer comment parvenir à s'émanciper de certains schémas narratifs, dans les films comme dans la vie...

## AUSARTAK

Stella, Anaïs, Élodie et Romane: haien bizia nahi duten gisara gobernatzeko deliberatuak diren lau heroi! Bizitzako adin desberdinak zedarrituko dituzten nahigabeak zeharkatzeko orduan lema bakar bat: aurre egitea. Lau pertsonalitate hauek haien burua kuriaia, umorea eta asmamenarekin goraki agertzera behartuak izanen dira finkatua izan zaien egoeraz askatzeko. Zinemako emazteen pertsonaien irudikapena zalantzan jarriz, programa honen laburmetraien asmoa da xerkatzea nola askatu zenbait eskema narratiboez, filmetan bezala bizian ere...

- **BURN OUT**
  DE CÉCILE CARRÉ (2017, 4')
- **FUCK LES GARS**
  D'ANTHONY COVENEY (2018, 8')
- **PILE POIL**
  DE LAURIANE ESCAFFRE ET YVONNICK MULLER (2018, 21')
- **ROMANCE, ABSCISSE ET ORDONNÉE**
  DE LOUISE CONDEMI (2020, 20')



## 143 RUE DU DESERT

FRANCE | 2020 | 1H42 | RÉALISÉ PAR HASSEN FERHANI

En plein désert algérien, dans son relais, une femme écrit son Histoire. Elle accueille, pour une cigarette, un café ou des oeufs, des routiers, des êtres en errances et des rêves...

Elle s'appelle Malika.

Esquisse d'une Algérie en suspens, 143 rue du Désert est aussi le portrait émouvant d'une femme qui se tient au milieu des hommes, une magnifique gardienne du vide, qui dessine les contours du monde depuis le seuil de sa cabane...

→ **Vendredi 25 juin à 20h30,**
**Séance en présence du réalisateur Hassen Ferhani.**
Séance en partenariat avec l'ACID.

## 143 RUE DU DESERT (143 BASAMORTUAREN KARRIKA)

FRANTZIA | 2020 | 1:42 | HASSEN FERHANI-K ZUZENDURIK

Aljeriar basamortu baten erdian, haren geldialdiko gunean, emazte batek haren Historia idazten du. Zigarreta bat, kafe bat edo arroltze batzuen truke, kamioilariei, noragabekoan dauden jendeei eta ametsei eskaintzen die harrera... Mailka deitzen da.

Gelditurik atxiki Aljeria baten zirrimarra izateaz gain, gizonen artean kokatzen den emazte baten potreta hunkigarria da ere 143 rue du Désert, munduaren inguruak haren ttattolaren atetik marrazten duen hutsaren zaindari miresgarri bat...

→ **Ekainaren 25ean, ostiralarekin 20:30etan, Hassen Ferhani filmaren egilearekin solasaldia emanaldiaren ondotik.** ACID-ekin partaidetzan antolatu emanaldia.



Bio : Hassen Ferhani est né à Alger en 1986. De 2003 à 2008, il co-anime le ciné-club de l'association Chrysalide à Alger. DANS MA TÊTE UN ROND-POINT, son premier long métrage plusieurs fois primé autour d'un abattoir d'Alger, est sorti en 2016. En 2019, le jury du Festival international du film de Locarno décerne le Léopard du Meilleur Réalisateur émergent à 143 RUE DU DÉSERT dans la compétition "Cinéastes du présent".

Bioa : Aljer-en 1986an sortua da Hassen Ferhani. 2003tik 2008ra, Chrysalide elkarteko zine klubeko animatzaileetakoa da Aljer-en. Dans ma tête un rond-point (Nire buruan biribilgune bat), Aljereko abere hiltegi baten inguruan filmatu eta hainbat aldiz saritua izan den haren lehen luze metraia 2016an atera da. 2019an, Locarnoko Nazioarteko filmaren festibaleko epaimahaiak bere burua ezagutarazten hasten den Film Egile Onenaren Léopard saria eskaintzen dio 143 rue du désert obrari, Gaurko Zinegileen Lehiaketan.

# FOCUS
# CiNÉMA BASQUE
## EUSKAL ZiNEARi BEGiRADA BEREZiA



### NORA
ESPAGNE, FRANCE | 2020 | 1H40 | EN VO | RÉALISÉ PAR LARA IZAGUIRRE AVEC ANE PIKAZA, HÉCTOR ALTERIO, RAMÓN BAREA
Nora, 30 ans, vit avec son grand père argentin Nicolas et s'occupe souvent des enfants de son amie Meri. Elle écrit l'horoscope pour la revue du village, bien que son rêve soit celui d'être écrivain voyageur. A sa mort, son grand père lui laisse en héritage une vieille voiture. Même si la conduite n'est pas son fort, Nora se lance alors dans un road trip sur la côte du Pays basque... Tourné en grande partie entre Hendaye et Saint-Jean-de-Luz, NORA nous entraîne dans les tribulations d'une jeune trentenaire interprétée avec beaucoup de charme par la comédienne Ane Pikasa...

→ **Vendredi 25 juin à 20h15, séance en présence de la réalisatrice Lara Izaguirre, de la comédienne Ane Pikasa (sous réserve) et de la compositrice Paula Olaz.**

### NORA
ESPAINIA, FRANTZIA | 2020 | 1:40 JB-AN | LARA IZAGUIRREK ZUZENDURIK ANE PIKAZA, HÉCTOR ALTERIO, RAMÓN BAREAREKIN
Nora, 30 urtekoa, Nicolas haren aitatxi argentinarrarekin bizi da eta Meri bere adiskidearen haurrez usu arduratzen da. Horoskopoa idazten du herriko aldizkarirako, bere ametsa idazle bidaiaria izatea bada ere. Aitatxik, hiltzean auto zahar bat uzten dio. Nahiz eta gidari trebea ez izan, road trip baterako abiatzen da Nora Euskal Itsasbazterrean gaindi... Irudiak gehien bat Hendaia eta Donibane Lohizuneren artean eginak izan dira NORA filmarako, Ane Pikasa aktoreak xarma handiarekin antzeztu hogoita hamar urteko gazte baten nahigabeetan murgiltzen gaitu...
→ **Ekainaren 25ean, ostiralarekin 20:15etan Lara Izaguirre film egilea, Ane Pikasa antzezlea (baieztatzekoa) eta Paula Olaz musikagilearekin. solasaldia emanaldiaren ondotik.** Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin



Bio
Lara Izagirre mène de front une activité de réalisatrice et de productrice à travers la société de production Gariza Films. En 2015, elle réalise et produit son premier long métrage UN OTOÑO SIN BERLIN, primé du Goya du meilleur espoir féminin et du Prix du Jury Jeunes à Saint-Jean-de-Luz.

Bioa
Lara Izagirrek aldi berean film egile eta ekoizle gisa jarduten du Gariza Films ekoizpen sozietatearen bitartez. 2015ean, emakume gazte onenaren Goya eta Donibane Lohizuneko Gazte Epaimahaiaren Saria irabazi duen UN OTOÑO SIN BERLIN haren lehen luzemetraia irbazten du.



### LES SORCiÈRES D'AKELARRE
ESPAGNE, FRANCE | 2020 | 1H30 | EN VO | RÉALISÉ PAR PABLO AGÜERO AVEC ALEX BRENDEMÜHL, AMAIA ABERASTUR, JONE LASPIUR, ELENA URIZ...
◗ Sélection officielle au dernier Festival de Saint Sébastien/Zinemaldia.
Pays Basque français, 1609. Les hommes de la région sont partis loin en mer. Ana, 17 ans, participe pour la première fois à une fête dans les bois, la nuit, avec d'autres filles du village. A l'aube, elles sont arrêtées. Le juge Rosteguy De Lancre, missionné par le Roi pour purifier la région, les accuse de sorcellerie. Ana commence par résister au juge avant d'entrer peu à peu dans son jeu...
S'inspirant d'un épisode réel de la chasse aux sorcières, Pablo Agüero signe une ode lumineuse et sauvage à la liberté et à la résistance, dans une restitution très actuelle de la langue, des chants et danses basques...

→ **Samedi 26 juin à 20h15, séance en présence du réalisateur Pablo Agüero et de la comédienne Amaia Aberasturi.**
Film soutenu par la région Nouvelle-Aquitaine et accompagné par ALCA et par CINA. Avec le soutien de l'Institut culturel basque.

### AKELARREKO SORGiNAK
ESPAINIA, FRANTZIA | 2020 |1:30 JB-AN | PABLO AGÜEROK ZUZENDURIK ALEX BRENDEMÜHL, AMAIA ABERASTUR, JONE LASPIUR, ELENA URIZEKIN...
◗ Hautaketa ofizialean azken Donostia/Zinemaldia festibalan.
Frantziako Euskal Herria, 1609. Eskualdeko gizonak urrutira joan dira itsasoz. 17 urte dituen Anak lehen aldiko parte hartzen du besta batean oihanean, gauaz, herriko beste neska batzuekin. Goiztirian, atxilotuak dira. Erregeak eskualdea garbitzeko izendatu Rosteguy De Lancre epaileak sorginak izatea leporatzen die. Anak hastapen batean epaileari aurre egiten badio ere, pixkanaka haren jokoan sartzen da...
Sorgin ehizaren egiazko historian oinarriturik, Pablo Agüerok askatasuna eta erresistentziari omenaldi argitsu eta basa ederra eskaintzen die, gaurkotasunez beteriko euskal hizkuntza, kantu eta dantzekin berreraikitzea burutuz...

→ **Ekainaren 26an, larunbatarekin 20:15etan, Pablo Agüero film egilea eta Amaia Aberastur antzezlearekin solasaldia emanaldiaren ondotik..**
Akitania Berria eskualdeak lagundu eta ALCA-k sostengatu filma. Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin.



Bio : Pablo Agüero, originaire de la Patagonie argentine, a signé plusieurs courts et longs métrages récompensés dans de prestigieux festivals. Il a notamment reçu le Grand Prix du Meilleur Scénariste pour le scénario du film EVA NO DUERME (EVA NE DORT PAS), sorti en salles en 2015. LES SORCIERES D'AKELARRE, son 4ème long-métrage coécrit avec Katell Guillou, a reçu 5 Goya, l'équivalent de nos César...

Bioa : Argentinako Patagonian sortu Pablo Agüerok, festibal ospetsuenetan sariztatu labur eta luze metrai desberdinak burutu ditu. 2015ean, zinegeletan atera EVA NO DUERME (EVA EZ DA LO) filmaren gidoierako Gidoilari Onenaren Sari Nagusia irabazi du. LES SORCIERES D'AKELARRE, Katell Guillourekin batera idatzi duen 4. luzemetraiak, gure César-en parekoak diren 5 Goya irabazi ditu...

→ **Vendredi 25 juin à 16h**

## TABLE RONDE :
LA PLACE DES FEMMES
DANS LE CINÉMA BASQUEÀ

À travers la présentation du collectif Hemen - équivalent du collectif 50/50 en Hegoalde - et des actions concrètes mises en place pour promouvoir les femmes dans le cinéma et l'industrie audiovisuelles (cf. le projet Aukera), on s'interrogera sur la place singulière des femmes dans le cinéma basque. Comment peuvent-elles contribuer en tant que professionnelles à l'évolution des représentations et des récits ? Quelles sont les batailles à mener pour lutter contre les inégalités ?

En présence de Iratxe Fresneda, réalisatrice et productrice / Maria Pilar Rodriguez, directrice de publication d'une étude sur la représentation du genre dans le cinéma basque, à paraître / Lara Izaguirre, réalisatrice, productrice et vice-présidente du collectif Hemen / Paula Olaz, compositrice / Itziar Leemans, réalisatrice / Miren Aperribay, distributrice Aterra films (sous réserve). Modération : Luz Olaizola, coordinatrice du département cinéma à la Tabakalera.

→ Entrée libre. Traduction simultanée du basque au français.

→ **Le même jour à 15h, en prélude à la table ronde, projection du film IRRiNTZiAREN OiHARTZUNAK**
ESPAGNE | 2016 | 54' | RÉALISÉ PAR IRRATXE FRESNEDA
Un portrait de la cinéaste navarraise Mirentxu Loyarte, réalisatrice du film avant-gardiste Irrintz en 1978.
- Tarif unique : 3 eur.

→ **Ekainaren 25ean, ostiralarekin 16:00etan**

## MAHAI INGURUA: EMAZTEEN LEKUA EUSKAL ZINEMAN

Hegoaldeko 50/50 kolektiboaren parekoa den Hemen kolektiboaren aurkezpena eta emazteak zinegintzan eta entzunikusezko industrian sustatzeko abian ezarri ekimen konkretuen bitartez (ik. Aukera egitasmoa), emazteek euskal zinegintzan duten leku berezia aipagai izanen dugu. Zer ekarpen egin dezakete profesional gisa irudikapen eta kontakizunen bilakaeran? Zoin dira eraman beharreko ezberdintasunaren aurkako borrokak?

Iratxe Fresneda, film egile eta ekoizlea / Maria Pilar Rodriguez, euskal zinegintzan emazteek duten irudikapenari buruzko ateratzekoa den ikerketa baten argitalpen zuzendaria / Lara Izaguirre, film egilea, ekoizlea eta Hemeneko lehendakariordea / Paula Olaz, musikagilea / Itziar Leemans, film egilea / Miren Aperribay, Aterra films-eko banatzailea (baieztatzekoa). Moderatzailea: Luz Olaizola, Zinegintza saileko koordinatzailea Tabakaleran.

→ Sartzea urririk. Bapateko itzulpena euskaratik frantsesera. Euskal Kultur Erakundearen laguntzarekin

→ **Egun berdinean, 15:00etan**, mahai ingurua aitzin, **IRRINTZIAREN OIHARTZUNAK** filmaren emanaldia.
Mirentxu Loyarte, Irrintz film aitzingidaria 1978an zuendu zuen nafartar zinegilearen potreta.

# PROGRAMMATiON ENFANT
issue du Gaztefilm Fest de Vitoria-Gasteiz



→ **Mercredi 23 juin à 14h15**
**Projection en Avant-première de FRiTZi**
ALLEMAGNE | 2020 | 1H26 | EN VF | RÉALISÉ PAR RALF KUKULA ET MATTHIAS BRUHN _ À partir de 8 ans
Leipzig, 1989. Fritzi et le chien Sputnik entreprennent de traverser la frontière à la recherche d'une amie…
Belle histoire et subtile manière de nous faire vivre, à hauteur d'enfant, l'ambiance de l'Allemagne de l'est à la veille de la chute du Mur de Berlin…

→ **Samedi 26 juin à 16h30**

## JACOB ET LES CHiENS QUi PARLENT

LETTONIE | 2019 | 1H10 EN VF | RÉALISÉ PAR EDMUNDS JANSONS _ À partir de 5 ans
Jacob et son amie Mimi, soutenus par une bande chiens, tentent de sauvegarder le vieux quartier auquel ils sont attachés…
Les deux films seront accompagnés du court-métrage **028**, découvert au Gaztefilm fest.
Frissons garantis !

## Gasteizko Gaztefilm Fest-etik hartu HAUR PROGRAMAZiOA



→ **Ekainaren 23an, asteazkenarekin 14:15etan FRiTZi**ren aitzin agerraldia
Alemania | 2020 | 1:26 JB-an |Ralf Kukula eta Matthias Bruhn-ek zuzendurik - 8 urtetik aitzina
Leipzig, 1989. Fritzi eta Sputnik abiatzen dira muga zeharkatzeko lagun baten bila…
Istorio ederra eta Berlineko Murrua erortzekotan zegoeneko ekialdeko Alemaniaren giroa, haur baten goratasunean, biziarazteko molde sotila…
→ **Ekainaren 26an, larunbatarekin 16:30etan**

## JACOB ETA MiNTZO DiREN XAKURRAK

Letonia - 2019 – 1:10 JB-an |Edmunds Jansons-ek zuzendurik - 5 urtetik aitzina
Jacob eta Mimi haren adiskidea, xakur talde batek lagundurik, entseatzen dira hain gogokoa duten auzotegi zaharraren salbatzen…

Gaztefilm fest-en lehen aldiz agertu 028 laburmetraia bi film hauen emanaldien aitzin programan aurkeztua izanen da. Ikara ederrak bizitzeko!

# JOURNÉE PROFESSiONNELLE

**MiCRO RÉSiDENCE ZiNELEKU HEMENDiK / DÉVELOPPEMENT DE PROJETS + PiTCH**

**En collaboration avec le Gaztefilm Fest et Zukugailua, le cinéma L'Atalante organise pour la première fois dans le cadre de son festival une résidence à destination de cinéastes émergents. Sur trois jours, du 23 au 25 juin 2021, le ou la candidat(e) développera son projet auprès de professionnels du cinéma. Ce processus aboutira à la présentation du projet devant des producteurs du territoire (Aquitaine, Euskadi, Navarre) lors de la séance de pitching du vendredi 25 juin. Deux projets se verront dotés d'une bourse de 1000 euros à travers le Prix Kanaldude.**

GaztefilmFest est un festival de cinéma par et pour les enfants et les adolescents créé à Vitoria-Gazteiz. Il organise aussi le programme de formation et de création ZINELEKU, dont l'Atalante est partenaire. Zukugailua (La Centrifugeuse) est une association créée en Iparralde dans le but de soutenir et dynamiser la création audiovisuelle et cinématographique au Pays basque.

# LANBiDE EGUNA

**ZiNELEKU MiKRO EGONALDiA HEMENDiK / EGiTASMO GARAPENA + PiTCH**

**Gaztefilm Fest eta Zukugailuarekin lankidetzan, jalgitzen diren zinegileei zuzendu egonaldi bat festibalaren karietara antolatzen du lehen aldiko Atalante zinemak. Hiru egunez, 2021eko ekainaren 23tik 25era, haren egitasmoa zinegintzako lanbidezkoengana hedatuko du hautagaiak. Ekainaren 25ean, ostiralarekin, pitching saioaren karietara, Akitania, Euskadi, Nafarroak osatu lurraldeko ekoizle batzuei aurkeztuko dizkie haren egitasmoa prozesuaren bukaeran. Bi egitasmo 1000 eur.-ez sarituak izanen dira Kanaldude Sariaren bitartez.**

Gasteizen haurrek eta nerabeek haurrentzat eta nerabeentzat sortu zine festibala da GaztefilmFest. Honela, Atalante partaidetzat duena ZINELEKU sorkuntza eta formakuntza programa antolatzen du ere. Euskal Herrian ikus-entzun eta zinegintza sorkuntza sostengatu eta bizkortzea xede duen Iparraldean sortu elkartea da Zukugailua.

ZINEUSKADI ZUKUGAILUA GAZTEFILM FEST KANALDUDE Lycée René CASSIN

# HORAiRES ORDUTEGiAK

## MERCREDI 23/06 ASTEAZKENA

- 14:15 — FRITZI + COURT MÉTRAGE
- 17:00 — AUDACIEUSES
- 18:15 — DELPHINE ET CAROLE, INSOUMUSES
- 20:30 — AVANT-PREMIÈRE *AITZIN AGERRALDIAK* — DEBOUT LES FEMMES !
- 20:45 — LA VOIX D'AIDA
- 21:00 — SEIZE PRINTEMPS

## JEUDI 24/06 OSTEGUNA

- 14:15 — PLAYLIST
- 16:00 — 143 RUE DU DÉSERT
- 18:00 — OUVRIR LA VOIX
- 18:15 — AVANT-PREMIÈRE *AITZIN AGERRALDIAK* — LE KIOSQUE
- 20:15 — UNE HISTOIRE À SOI
- 20:30 — AVANT-PREMIÈRE — KUESSIPAN

## VENDREDI 25/06 LARUNBATA

- 15:00 — IRRINTZIAREN OIHARTZUNAK
- 17:00 — SEIZE PRINTEMPS
- 18:00 — RENCONTRE AVEC ALAIN DAMASIO
- 18:30 — UNE HISTOIRE À SOI
- 19:00 — AUDACIEUSES
- 20:15 — AVANT-PREMIÈRE *AITZIN AGERRALDIAK* — NORA
- 20:30 — 143 RUE DU DÉSERT
- 20:45 — PLAYLIST

## SAMEDI 26/06 OSTIRALA

- 14:30 — SEIZE PRINTEMPS
- 15:00 — PARQUE LENIN
- 16:00 — AUDACIEUSES
- 16:30 — JACOB ET LES CHIENS QUI PARLENT + COURT MÉTRAGE
- 17:00 — BOCA CIEGA
- 17:15 — PLAYLIST
- 20:15 — AVANT-PREMIÈRE *AITZIN AGERRALDIAK* — LES SORCIÈRES D'AKELARRE
- 20:30 — AVANT-PREMIÈRE — FIRST COW
- 20:45 — UNE HISTOIRE À SOI

AVANT-PREMIÈRE AITZIN AGERRALDIAK

RENCONTRE TOPAKETA

JEUNE PUBLIC HAUR PROGRAMAZIOA

# iNFOS PRATiQUES

→ LES TARIFS
**- Pass 5 places** (valable pour toutes les séances du festival) :
Tarif plein 20 euros / adhérents 15 euros.

**- Séance à l'unité :** tarifs habituels.

→ CONCERTS en extérieur : Gratuits

→ RESTAURATION proposée par le Bistro et par le « food-cycle » Taloa La Bouche tous les soirs à partir de 18h.

# ARGiBiDE BALiAGARRiAK

→ PREZIOAK **- 5 lekuko Pass-a** (festibaleko emanaldi guzientzat balio duena):
Prezio osoa 20eur. / kideak 15eur.

**- Emanaldia banaka:** usaiako prezioak.

→ KONTZERTUAK KANPOAN: urririk
→ JATEKOA eta edatekoa le Bistro eta « food-cycle » eta La Bouche Taloak arrats guziez 18:00etatik goiti proposaturik.

CiNÉMA L'ATALANTE

3 Quai Amiral Sala, Bayonne

05 59 55 76 63

Billets en prévente sur place et sur notre site :
Txartelak aitzinetik salgai lekuan berean eta gure gunean:

atalante-cinema.org

Conception Diseinua: ©Marion Duci - Traductions Itzulpenak: Peio Héguy